

Hernaniko Udaleko Gobernu batzarrak 2026ko martxoaren 05ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

HITZARMEN BIDEZKO DIRU LAGUNTZAK: 2026RAKO EGITASMOAK ETA AURREKONTUAK; EUSKARA PLANEKO EGITASMOAK

Dobera Euskara elkarteak 2026rako Euskara Planetik eratorritako egitasmoen proposamena aurkeztu du.

Aurkeztutako aurrekontuan, Udaletik 26.000,- euroko diru laguntza jasotzea aurrekusi dute, Euskara sailean aurkeztutako egitasmoak bideratzeko.

Euskara delegatuak ezagutzera eman du 2026ko udal aurrekontuetan 26.000 euro izendatuta daudela Dobera Euskara elkartearentzat **Euskara Planeko egitasmoen** izenean eta diru kopuru hori bideratzea proposatu du.

Beraz, diru laguntza honela bideratuko da:

Ordainketa era:

2026ko martxoan %75a	19.500,- €
2027ko otsailean likidazioa	<u>6.500,- €</u>
Guztira	26.000,- €

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak otsailaren 26ko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela Gobernu batzarrak **AHO BATEZ erabaki du**

1.- 2024ko martxoaren 27ko Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako hitzarmena Hernaniko udalak Dobera Euskara Elkartearekin sinatutakoa, berritzea.

2.- 2026ko udal aurrekontuetako dirulaguntza bideratzea hitzarmenean jasota dagoen ordainketa moduan eta epeetan. AD-2026-256

KONTUSAILA.- 02.481.02.335.00.2026. "Zuzeneko erregimenean emandako Euskara Zerbitzuko dirulaguntzak"

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik

Hala ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Aitor Iztueta Garaikoexea
Behin-behineko udal Idazkaria
Hernanin 2026ko martxoaren 10ean

Jakinarazpen hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoen bidez egiazta dezakezu.

